

ez izan arren beti gurasoen islada gara eta zuk 5 seme – alaba izan zenituen eta itzel ondo hezi gintuzun, mimo gehiegirekin agian. Benetan, zure bihotz barreanean, badakit nitaz harro zaudela, gutaz harro zaudela, “piña” bat baikara.

Bost neba-arreba, berdinak eta guztiz desberdinak aldi berean. Ai ama, ez dakizu ze nolako asteburua izan duen Bakarnek, zure bigarren alabak, bihotz onekoa dena, hori denok jakin badakigu!! Suposatzen zen asteburu erromantiko bat planeatuta zuela senarragaz baina asteburua infernu bilakatu zen. Gaixorik asteburu osoa! Ai ama, hauek ez dira zu bezain sendoak. Eskerrak seme sano eta mañoak dituztela.

Amatxu badakizu txikitan amets gaizto bat izaten nuela gauero? Bai, zu bezalako bi emakume hurbiltzen zitzaizkidan, bata ona bestea gaiztoa eta ba al dakizu nor aukeratzen nuen beti? Ba, sorgina! ! Aaaaa!!!

Etxea zure argazkiz beteta dugu, hain atsegina zinen eta hain ezkutuan zeneraman zure karga, aitaren zaintza. Leioako erromerian ezagutu zenuten elkar eta zure lagunak zera esaten zizun “Maria ez Joan horrengana, oso argala eta berbatia da” baina zuk benetan beragaz egon nahi zenuen eta ez guapo eta aberatsagoa zen beste tipo horregaz. Eta zure laguna azkenean, zurekin tematu zen. Eta bihotzeko lehenengo ebakuntza hartan, aítak korteski, ospitaleko monjei zure eskua eskatu zien, seriotan zihoala esanez. Eta urteak pasata, aítak jaken ikasi zuen.

Orain ama, gure aita ondo jakota dago eta bera bisitatzerantz noan bakoitzean, nire kantak barregura sortarazten dio, a ze nolako trastoia dela esaten dion ondoko agure astunak. Burura datorkit Sirenatxoaren abestia, akordatzeko? Gure Enetz txikiak Txurdiraino kitarra jotzen ikasteko klaseetara joaten zen eta egunero txapa bera botatzen zizun, melodia kantsagarri harekin “Corre, vuela, cruza las olas del mar, quién pudiera a una sirena encontrar”. Zure seme txikiak hala ere azkarrena, bere lagunak laguna, exotikoa eta orain enpresarioa, bai ama, optika txiki baina argi, txukun eta dotore baten jakitea da, eta bere burua erdal herri pitxi horretan zentzatu du.

Bihar, ama, tia Felisaren etxean elkarrekin bazkalduko dugu, Enetz, lehengusina, izeba... han egotea zenbat gustatuko litzaizukeen! zure ahizpekin, bazkaltzen... une batean zure penak baztertuko zenituen, zoriontsua izango zinen. Eta gu ere, zu horrela ikustean bakean egongo ginatke.